



## I. BAKARRIZKETA LEHIAKETA

**Antolatzailea:**

**Emakumearen Zerbitzua**

**Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloa**

**Babeslea:**

**Kultura Saila**

**Eusko Jaurlaritzaz**

**Lagunak:**

**Santurtzi Gastronomika**

**Comercios Unidos**

SANTURTZI  
udala - ayuntamiento



## OINARRIAK

**1.-** Santurtziko Udalaren Gizarte Ekintza Arloko **Emakumearen Zerbitzuak I. Bakarrizketa Lehiaketa** antolatu du, Santurtziko gizon eta emakumearen arteko Berdintasun 3. planean zehaztutako helburu eta ekintzekin bat etorritz.

**2.-** Bertan **16 urtetik gorako santurtziar guztiek** hartu ahal izango dute parte.

**3.-** Bakarrizketek hurrengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

**3.1.-** Bakarrizketak bi hizkuntza modalitateetan aurkeztu ahal izango dira: euskaraz eta gaztelaniaz, baina bakarrizketa bakoitza aipatu bi modalitateetako batean baino ez.

**3.2.-** Aurkeztutako bakarrizketak originalak eta berriak izan beharko dira, lehiaketetan lehenago inolako saririk jaso gabeak.

**3.3.-** Parte hartzaileek gehienez bina bakarrizketa aurkeztu ahal izango dute.

**3.4.-** Gaia librea izango da, baina lehentasuna emango zaie bi gai jakinen inguruko bakarrizketei: bata, **emakume eta gizonen arteko berdintasuna, erantzunkidetasuna eta etxeko lanen kontziliazioa**, eta bigarrena, **zahartze aktiboa, adineko pertsonen ongizatea eta horiekiko tratu ona eta belaunaldien arteko elkartasuna**, aurtengoa, 2012a, Zahartze Aktiboa eta belaunaldien arteko harremanen urte europarra baita.

**3.5.-** Dokumentazioa hurrengo hauetako bide bat erabiliz aurkeztuko da: Hurrengo helbide honetara posta arrunta gisa bidaliz: Emakumearen Zerbitzua-Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloa, Murrieta etob, 22 solairuartea, 11. atea – 48980 Santurtzi ; Aurreko puntuan adierazitako helbidean eskura emanaz; Hurrengo helbide elektronikoko honetara mezua bidaliz: [mcarroniz@santurtzi.net](mailto:mcarroniz@santurtzi.net). Jasotako materiala ez da itzuliko.

**3.6.-** Lan idatziak hirukoiztuta entregatuko dira. Gutun-azal batean leloa eta egilearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta nortasun agiriaren fotokopia sartuko dira. Kanpoko aldean aurkeztutako lanaren leloa eta hizkuntza modalitatea zein diren adieraziko da. Gutun-azala itxita egongo da.

**3.7.-** Bereziki baloratuko da bakarrizketaren interpretazioa grabatuta duen DVD formatuko maketa bat, edo jarduera eskegita duen Interneteko helbiderako lotura.

**4.-** Hizkuntza modalitate bakoitzean lehenengo saria eta accesita banatuko dira. Sariak honakoak izango dira:

### **Lehenengo Saria**

Sardinera baten figura txikia, 2 lagunentzako bazkari edo afaria Santurtziko jatetxe batean eta Santurtziko dendetan gastatu beharreko 250 euroko txekea.

### **Accesit saria**

Sardinera baten figura txikia Santurtziko dendetan gastatu beharreko 125 euroko txekea.

**5.-** Izena ematea doan izango da.

**6.-** Lanak aurkezteko epea 2012ko urriaren 5ean amaituko da, 13.30ean. Kanporaketa faseak urrian egingo dira.

**7.-** Epaimahaiak, Santurtziko Udalak izendatuak, ahalmena izango du saridunak nortzuk izango diren eztabaidatzean sor litezkeen gorabeheren inguruan erabakitzeke.

Aipatutako epaimahai hori izango da parte hartzaileen lanak baloratzeko aintzat hartuko diren puntuak zehazteko arduraduna, eta bereziki sarituko dira originaltasuna, bakarrizketaren edukia eta interpretazioa.

Lehiaketako antolatzaileek ez dute euren gain hartuko parte hartzailearen batek egin lezakeen plagioa edo indarrean dagoen legedia hauste, bereziki jabetza intelektualarekin lotutako arau hauste bada.

**8.-** Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar, eta oinarriotan jasota ez dagoen ezustekorik balego, epaimahaiak ezusteko horren inguruan hartutako erabakia ere bai.

**9.-** Lehiaketaren kanporaketa faseak Santurtziko Casa Torre Jauregian egingo dira (Sabino Arana, z/g) edo Kresala Aretolan (Joxe Migel Barandiaran, 12) 18:30etik 22:00etara, antolatzaileek zehaztuko dituzten egunetan.

**10.-** Santurtziko Udalaren eskumena izango da deialdi honen edo oinarrien interpretazioaren inguruan sor edo ezar litezkeen erabakiei buruzko ebazpena ematea.

### **11.- LEHIAKETA NOIZ ETA NON EGINGO DEN:**

Antolatzaileek jasotako lan guztien lehen hautaketa egingo dute, eta aurkeztutako testu guztiak irakurri eta aztertuko dituzte oinarri hauetan azaldutako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatze aldera. Horrela izan ezean, lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Lehiakideren batek ezin badu inolaz ere ekitaldiaren egunean bakarrizketa eskaini, behar bezala arrazoitzeaz gain, antolatzaileei gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi beharko die. Horrela egin ezean, lehiaketatik kanpo geratuko dira.